

# HIRI-PARKEAK DENONTZAT!

Paseatu, hegaztiak behatzeko eta entzuteko gelditu, zuhaitz baten itzalpean deskantsatu... **GOZATU!!!**

Neurri errazek laguntzen dute bertan bizi diren espezieentzat baldintza egokiak sortzen eta beren erabilera eta baloreak (historikoak, kulturalak eta arkitektonikoak) mantentzen.

1. Errespetatu itzazu oharrak, seinaleak eta arauak.
2. Zakarrontzirik edo zaborra sailkatuta uzteko aukerarik ez badago, onena da norberak bere zaborra eramatea.
3. Ura neurrian erabili, behar duzuna hartu eta txorrotara itxita utzi.
4. Saiatu ingurua ez nahasten. Habietatik urrun mantendu, ez eman janaririk animaliei, lasaitasuna errespetatu. Edozein aldaketa txikik ekosistemaren oreka hauts dezake.
5. Kontuz espezie inbaditzaileekin. Sekula ez da etxeko espezierik "askatu" behar (dortokak, arrainak, landareak,..), inguruan kalte handia sor dezakete eta.
6. Dibulgazio kanpainak ezagutu, parte hartu, eta egoera susmagarrikerik ikusten baduzu bertako langileei esan edo udaletxean jakinarazi.

Hiri-parkeek eta eremu berdeek estetika eta aisiarako balioa izateaz gain, badute biodibertsitatea kontserbatzeko eta areagotzeko balio ekologikoa, hirigintza garapenerik hainbesteraino kaltetu dutena.

- ZENBAT ETA HABITAT GEHIAGO, ORDUAN ETA HANDIAGOA IZANGO DA BIODIBERTSITATEA. Dauden habitatak mantendu (putzuak, landare geruza desberdinak, harrizko paretak...) edo elementu artifizialak jarri (habia-kutxak, janontziak, teilatu eta fatxada berdeak...).
- ZUHAITZ HELDUAK, ORBELA ETA HILDAKO EGURRA DITUZTEN TOKIAK MANTENDU. Hainbat animalia (saguzaharrak, okilak, animalia deskonposatzaileak...) elikatzeko, babesteko eta ugalketarako aukera ematen dieten tokiak dira, batez ere negu partean.
- ANTZINAKO PARETAK ETA HORMAK MANTENDU. Batez ere harrizkoak badira, animalia txiki askok erabiltzen dituzte eta pareta zein hormetako pitzadurak eta zuloak babesteko. Paretako landareak, goroldioak eta likenak hazteko ere balio dute.
- HERRIKO BERDEGUNEEN ARTEKO LOTURAK BULTZATU. Sare bat osatu behar dute, askotan irla berdeak besterik ez dira eta. Kaleetan zuhaitzak landatuta, teilatu biziak sustatuta eta gune berde berriak sortuta animalien mugimendua errazten da.
- BERTAKO ESPEZIEAK ERABILI. Basoko beste espezie batzuk agertzen laguntzeaz gain, mantentze-lan gutxiago izango dira.

<http://www.tolosaingurumena.net>

<http://www.tolosakoiz.net>

TOLOSAKO  UDALA

  
tolosakoingurumenzentroa

**Guri ere badagokigu parkeak egoera onean mantentzea !!!**



# ¡PARQUES PARA TODOS!

Pasea, párate a escuchar  
y observar los pájaros,  
descansa a la sombra de un  
árbol... ¡¡¡DISFRUTA!!!

Medidas sencillas hacen que sean adecuados para las especies que viven en ellos y que mantengan sus valores de uso, histórico, cultural y arquitectónico.

1. Respetar los avisos, señales y normas.
2. Si no hay papeleras o lugares para depositar de forma selectiva las basuras, lo mejor es que cada cual se lleve sus basuras.
3. Usa solo el agua necesaria y cierra el grifo.
4. Evita intervenir en el medio. Mantente alejado de los nidos, no des de comer a los animales, respeta la tranquilidad. Cualquier pequeño cambio puede afectar al equilibrio del ecosistema.
5. Cuidado con las especies invasoras. De ningún modo se han de "liberar" especies que tengamos en casa (tortugas, peces, plantas...) pueden crear muchos problemas en el medio.
6. Conoce y toma parte en las campañas de divulgación y concienciación, y en el caso de observar alguna situación sospechosa avisa al personal de mantenimiento o en el ayuntamiento.

Los parques y zonas verdes además de tener valor estético y de ocio, tienen un importante valor ecológico para preservar la biodiversidad, tan dañada en los desarrollos urbanísticos.

- **A MAYOR NÚMERO DE HÁBITATS MAYOR BIODIVERSIDAD.** Mantener los que ya existen (charcas, estratos herbáceos diferentes, paredes de piedra...) o meter elementos artificiales (cajas-nido, comederos, tejados y fachadas verdes...).
- **MANTENER ZONAS CON ÁRBOLES VIEJOS, HOJARASCA Y MADERA MUERTA.** Importantes, sobre todo en invierno, ya que aportan alimento, protección y zonas para reproducirse a diferentes animales (murciélagos, pájaros carpinteros, descomponedores...).
- **MANTENER VIEJAS PAREDES Y MUROS.** Sobre todo si son de piedra, sus grietas y recovecos son utilizados por pequeños animales para protegerse. También sirven como base para plantas de pared, musgos y líquenes.
- **FACILITAR LA CONEXIÓN ENTRE LAS DIFERENTES ZONAS VERDES.** Que formen una red ya que en muchas ocasiones son auténticas islas verdes. Plantar árboles en las calles, potenciar los tejados "vivos" y crear nuevas zonas verdes facilita el movimiento de los animales.
- **UTILIZAR ESPECIES AUTÓCTONAS.** Además de ayudar a la aparición de otras especies forestales, requieren un menor trabajo de mantenimiento.

<http://www.tolosaingurumena.net>

<http://www.tolosakoiz.net>

TOLOSAKO  UDALA

  
tolosakoingurumenzentroa

¡¡¡A nosotros nos toca mantenerlas en buenas condiciones!!!